

Topalekua

82 zk. 2013ko urria

octubre 2013 - n.º 82

1.orr.: *Gizarte-Kontseiluak UPV/EHUko 2012ko kontabilitate-egoerak onetsi ditu*

2.orr.: *CYD Fundazioaren txostenak krisiaren ondorioez ohartarazteaz gain, laneratzea, ikertzea eta ezagutzen transferentzia okerrera egiten ari direla aipatzen du*

2.orr.: *Gizarte Kontseiluak lau kontseilukide berri ditu*

3.orr.: *Euskadin gora egin du zientzian eta teknologian adierazitako interesak*

4.orr.: *Atzerrira emigratzen duten EAE-ko tituludunen kopurua handixeagoa da*

GIZARTE-KONTSEILUAK UPV/EHUko 2012ko KONTABILITATE-EGOERAK ONETSI DITU

Universidad del País Vasco/ Euskal Herriko Unibertsitateko Gizarte Kontseiluak, Bilbon, urriaren 9an egin zuen osoko bilkuran onetsi zituen UPV/EHUren 2012ko aurrekontuen kontabilitate-egoerak. Ekitaldia 1,2 milioi euroko superabita zegoela itxi zen. Unibertsitate publikoak unibertsitateko gobernu-organoari aurkeztu zion ekonomiari eta finantzaketari buruzko informazio hori,

gizarteari kontuak emateko prozesuaren esparruan.

Era berean, Kontseiluak, 10 kreditu baino kreditu gutxiagoko ikastaroetarako ezarritakoa betetzeko, ikasketa osagarrien 12 ikastaroren prezioak baliozkotzea erabaki zuen. Ikastaro horiek UPV/EHUko Doktorego Azpibatzaordeak onartu ditu. Ikastaroen eskaintza:

- “Fatxada arinak: eraikitzea, obratzea eta segurtasuna” (4. aldia). 700,00 € (129,63 euro kredituko; 5,4 kreditu).
- “Fatxada arinak: energia-eraginkortasuna eta berrikuntza” (4. aldia). 700,00 € (129,63 euro kredituko; 5,4 kreditu).
- “Fatxada arinen diseinua” (2. aldia). 700,00 € (129,63 euro kredituko; 5,4 kreditu).
- “Fatxada arinen kalkulua” (2. aldia). 700,00 € (129,63 euro kredituko; 5,4 kreditu).
- “Bioerabilgarritasuna eta biobaliokidetasuna”. 300,00 € (100,00 euro kredituko; 3 kreditu).
- “Ikastaro teoriko-praktikoa: Plexu brankialari egokitutako anestesia lokala eta erregionala”. 50,00 € (12,50 euro kredituko; 4 kreditu).
- “Interpretazioa I” (7. edizioa). 585,00 € (75,00 euro kredituko; 7,8 kreditu).
- “Performance eta mugimendua” (7. edizioa). 577,50 € (75,00 euro kredituko; 7,7 kreditu).
- “Eszena-eremua” (7. edizioa). 480,00 € (75,00 euro kredituko; 6,4 kreditu).
- “Interpretazioa II” (7. edizioa). 180,00 € (75,00 euro kredituko; 2,4 kreditu).
- “Erljioaren didaktika” (2. aldia) 200,00 € (25,00 euro kredituko; 8 kreditu).
- “CAE. Ikastaro Aurreratua: Elementu Finituen Bidezko Simulazioa, Kalkulua eta Injeniaritza” (15. edizioa). 500,00 € (35,7143 euro kredituko; 14 kreditu).

CYD FUNDAZIOAREN TXOSTENAK KRISIAREN ONDORIOEZ OHARTARAZTEAZ GAIN, LANERATZEA, IKERTZEA ETA EZAGUTZEN TRANSFERENTZIA OKERRERA EGITEN ARI DIRELA AIPATZEN DU



“Informe CYD 2012” txostena aurkezteko ekitaldia

Azken bederatzi urteotan, CYD Fundazioak Espainiako Estatuko unibertsitateek garapenari egin dioten ekarpena aztertu du. Beraz, unibertsitate-sistemaren egoera gainbegiratu ondoren, honako ondorio hauek atera ditu 2012ko CYD Txostenean:

- **Krisiaren eragina eta sistemaren eraldaketa:** hurrengo urteetan ere murrizketak jasoko dira aurrekontuetan. Unibertsitatean nabariak dira, batetik, krisiaren ondorio ekonomikoak, eta, bestetik, Administrazio guztiek egin beharreko zerga-baterakuntzaren prozesuaren eragina. Autonomia erkidegoetako transferentzien murrizketa dela eta, unibertsitate-aurrekontuak txikiagotu egin dira. Horregatik, giza kapitala ezin izango da bermatu, ezta zientzia- eta teknologia-sistemen potentziala ere.

Hala eta guztiz ere, unibertsitate-ereduan aldaketak egin behar dira, ekonomia-aren lehiakortasuna hobetzen lagungarria izan dadin.

- **Unibertsitate-tituludunen laneratzea:** Espainiako Estatuko egitura produktiboak sortu ahal dituen goi mailako lanpostuen kopurua baino handiagoa da goi-mailako ikasketak dituzten graduatuen: goi-mailako graduadunen langabezia-tasa %15era iritsi zen 2012an (EB-27ko %6); eta 2007an, ordea, Europako batez beste-koaren baliokidea zen.

- **Ikertzea eta ikerketen emaitzak gizarteari transferitzea:** baliabide publikoak gutxiagotu egin dira, eta inbertsio pribatuak atzera egin du; horregatik, 2009a arte egon zen hazkunde iraunkorreko joera aldatu da. Azken hamarkadan, patente eta lizentzien eskabideek, lizentziek sortutako diru-sarrerek ez bezala, nolabait hazkundera izan badute ere, eta Espainiako Estatuko unibertsitateek zientzia-argitalpen gehiago egin duten arren, ikerketaren emaitzak gizarteari transferitzeko tasa islatzen duten adierazleak etengabe jaisten ari dira (transferentzia-bulegoetan egindako kontratuek %11 egin dute behera, eta sortutako spin-offek %15,3, etab.).

GIZARTE KONTSEILUAK LAU KONTSEILUKIDE BERRI DITU

Duela gutxi, bi kontseilukide berri gehitu dira UPV/EHUko Gizarte Kontseiluan: Aurkene Astibia, Gipuzkoako Batzar Nagusien ordezkari gisa; eta Carlos Pereda, Confebask-en ordezkari gisa. Eta azken osoko

bilkuran beste bi kontseilukide izendatu ziren: Armando Llanos, Arabako Batzar Nagusien izenean; eta Jon Ander Aguirrechu, Unibertsitateko ikasleen izenean.



Aurkene Astibia
Gipuzkoako Batzar Nagusia



Carlos Pereda
Confebask



Armando Llanos
Arabako Batzar Nagusia



Jon Ander Aguirrechu
Unibertsitateko ikasleen

EUSKADIN GORA EGIN DU ZIENTZIAN ETA TEKNOLOGIAN ADIERAZITAKO INTERESAK



Miren Bego Urrutia., Politika Zientifikoko zuzendaria; Leire Cancio, Elhuyar Fundaziokoak; eta Juan Ignacio Pérez Iglesias, Kultura Zientifikoaren Katedrako koordinatzailea

Azken sei urteotan, zientzian eta teknologian adierazitako interesak %11 egin du gora, eta batak eta besteak gastu publikoan “lehenasuna” izan behar dutelako ustea %18 areagotu da, *Euskal Herriko gizarteak zientziari eta teknologiari buruz duen ikuspegiaren ikerketa 2012* txostenean egindako azterlanaren emaitzen arabera. Txosten hori UPV/EHUko Kultura Zientifikoaren Katedrak, Elhuyarrek eta Hezkuntza, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak sustatu dute.

Azterlana ikuspegi kualitatibotik eta ikuspegi kuantitatibotik egin da (lehenari dagokionez, 15 talde-dinamika antolatu dira; eta bigarrenari dagokionez, 1.258 pertsona inkestatu dira). Atera diren ondorioen artean, besteak beste, honako hauek nabarmentzekoak dira:

- Inbertsioaren helburuak eta zientziaren eta teknologiaren garapenak Europan gailentzen diren herrialdetakoen maila bera izan behar dute.
- Enpresa pribatuek ez dute baliabide nahikorik inbertitzen ikerkuntzan.

- Zientziari eta teknologiari lotutako lanbideen irudia ona da.
- Herritarren segmentu gazteenek, 15-29 urte bitartekoek, interes handixeagoa dute zientzian eta teknologian.
- Zientziari eta teknologiari buruzko informazio-maila “tartekoa” edo “zertxobait informatua” dela jo da.
- Informazio-bide nagusiak Internet (2006. urteko emaitzen aldean %33 igo da) eta telebista.
- Oro har, inkestatuek uste dute instituzioek baliabide gehiago eskaini beharko lizkieketela zientzia-eta teknologia-ikerketei.
- Zientzia-jardueren gaineko arauak osasuna eta ingurumena babestu behar dituzte.
- Ikerketa-instituzioetan eta -organismoetan (ospitaleetan, unibertsitateetan, museoetan, etab.) dagoen konfiantza-maila “altua edo oso altua” dela ondorioztatzen da.

(1. orritik dator)

Corcuera, UPV/EHUko Gobernu Kontseiluko Gizarte Kontseiluaren ordezkaria

Bilera berean, osoko bilkurak aurrekontu-aldaketa batzuk onartu zituen, eta Gizarte Kontseiluaren finantzaketa-informazioaren egoerak, 2013ko lehenengo seihilekoari buruzkoak, aztertu zituen.

Osoko Bilkurara lehendabizi etorri ziren Armando Llanos, Arabako Batzar Nagusien izenean; eta Jon

Ander Aguirrechu, Unibertsitateko ikasleen ordezkari. Haiekin batera, aurreko bileretan beste bi kontseilukide berri gehitu ziren Gizarte Kontseiluan: Aurkene Astibia, Gipuzkoako Batzar Nagusien ordezkaria; eta Carlos Pereda, Confebask-en ordezkaria. Bileraren amaieran, osoko bilkurak Paulino Corcuera UPV/EHUko Gobernu Kontseiluko Gizarte Kontseiluaren ordezkari izendatu zuen.

ATZERRIRA EMIGRATZEN DUTEN EAE-ko TITULUDUNEN KOPURUA HANDIXEAGOA DA

Euskal Unibertsitateetan ikasketak bukatu zituzten eta beste erkidego batzuetara lan bila joan ziren gazte tituludunen kopurua 2005. eta 2008. urteetan 2,4 puntu jaitsi zen: %8tik %5,6ra aldatu baitzen. Aitzitik, aldi berean atzerrira joatea erabaki zuten gazteen kopuruak gora egin zuen: %2,5etik %3,1era igo baitzen.


Bestela esanda, 2006tik 2008ra bitarteko hiru urteetan, EAEko hiru unibertsitateetan ikasketak bukatu zituzten hamar tituludunetatik batek bakarrik aukeratu zuen Euskaditik kanpora joatea lan egitera, eta %3 izatera ez ziren iritsi nazioarteko helmuga batera joan zirenak; hori guztia ondorioztatu da Bizkaia:talent erakundeak egin duen Talentuaren Mugikortasunari buruzko Txostena irakurritan. Txosten hori egiteko erabili dira unibertsitate-gradua duten 20.981 pertsonak hiru urte horietan "Unibertsitate-tituludunen laneratzeari buruzko inkesta"ri eman zizkion erantzunak.

Txostenak adierazten du gero eta unibertsitate-ikaskale guxtiago joaten direla lan bila EAetik kanpora: 2005ean, %11,7 joan zen; eta 2008an, %9,7; eta arrazoiak krisiaren ondorioak eta okupazio-tasaren beherakada direla.

Mugikortasunari buruzko txostenak honako hau ere agerian utzi du:

- Ikasketa teknikoak eta ikasketa esperimentalak bukatu dituzten tituludunek (%12,1 eta %13,6, hurrenez hurren) mugikortasun-tasa handiena dute, eta arlo sozialeko eta arlo juridikoko tituludunek txikiena (%7,5). Sexuei erreparatuta, emakumezkoen eta gizonezkoen artean ez dago aldaketa nabarmenik, mugikortasunari dagokionez.
- Ordainsariei dagokienez, txostenak jaso du lekualdatu direnek soldata handiagoa jasotzen dutela: 1.616 euroko soldata garbia jasotzen dute hilero; eta EAEn geratu direnek, aldiz, 1.475 eurokoa. Hala eta guztiz ere, EAEn geratu zirenek lehenago aurkitu zuten lana: 6,7 hilabete pasa ondoren; eta joan zirenek 7,2 hilabete eta gero.
- LTituludunen gogobetetzea pareko samarra da, lanari eta lan-baldintzei dagokienez. Horren harira, atzerrira joan direnek egonkortasuna eta lan-mailan igotzeko aukerak baloratzen dituzte, eta geratu direnek beste lan-baldintza batzuk, hala nola ordutegia edo hurbiltasuna, nabarmentzen dituzte.

Kanporanzko mugikortasunaren lantokia (graduatu guztizkoan)



Oinarria: Lana duten pertsonak: 2005=7.133; 2006=7.306; 2007=6.889; 2008=6.786

Hileroko soldataren garapena (14 ordainsari; lanaldi osoa)

